

Harri-jasotzea ♦ Euskal harrijasotzailerik onenak ariko dira bihar Bilbon, gazteekin batera

Txapeldunak, saio berean

Saralegi, Goenatxo, Zelai eta Perurenatarrak ariko dira, besteak beste

Koldo Alduntzin / Donostia

AUKERA gutxi izaten da urte osoan Euskal Herriko harri-jasotzailerik onenak batera ikusteko, eta are gutxiago markak egiteko asmotan. Horregatik, bihar Bilboko Abando tren geltokiko saioa ikusgarria izango da, ezbairik gabe. Izeta II.a kenduta, han izango dira Miel Saralegi, Juanjoxe Unanue *Goenatxo*, Joxeantonio Gisasola *Zelai*, Perurena aita-semeak eta Leioako harrijasotzaile eskolako gazteak, tartean Unai Aresti dela.

Horiek guztiak I. Herri Kirolen Egunekeo jaialdian ariko dira, Caja Madriden babespean. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da saio nagusia, eta Saralegi izango da azkena plazaratzen (20:00ak aldera). Leitzarrek Euskadiko Sei Orduetan 328ko koadroarekin marka ontzeko proposamena jaso du, eta hura prestatzen dihardu. Tolosan (Okzitania) 303koa leporatu zuen azaroaren 26an, eta Abandon 305ekoarekin saiatuko da.

Bi jasoaldi egiteko asmoa zuela zabaldu bazen ere, Mielek gezurtatu egin zigun berri hori, atzo: «Jasoaldi batekin ere nahikoa dut oraingoz. Anaia Nartxiren Oroimenezkoaren finala jokatuta hasi nintzen harri horrekin prestatzen, eta errespetua diot.



Goenatxo eta Saralegi, Urretxun. Biak batera ariko dira Bilbon.

Bestetik, egun berezi hauek direla eta, ez dut normal jardun; astelehenean hasi nintzen berriro. Hemendik hila-betera izango balitz, ez nuke batere arazorik izango. 328ko marka egiteko test bat izango dela esan genezake».

Goenatxok 175eko berunezko kuboarekin egingo du lan. Harri horren zailtasuna ez dira kiloak, neurriak baizik, 25 zentimetroko kuboak baita. Harri horrekin 1998ko azaroaren 30ean egin zuen marka ahalegina, eta 37

jasoaldi egin zituen ordu erdiz. Azkoitiarrak urteko kirolari onenen saria jasoberrri du Angelun, eta erronkari aurre egin beharko dio.

Zelai ez dabil ongi belau-netatik, baina marka ahalegina egingo du 150eko zilindroarekin, eta bost minutuko txandan, berak ezarritako 32 jasoaldiko marka ondu nahi du. Iñaki Perurenak lau harrirekin jardungo du, eta semeak 150ekoa eta 140koa (eskubakarrez) erabiliko ditu. Unai Aresti eta Itziar Al-

dama izango dira Leioako eskolako aipagarrienak.

Aizkora eta trontza

Beitiak eta Mendietak sei enbor kanaerdiko ebaki beharko dituzte aizkora saioan: lau etzanda eta bi zutik. Trontzan, Lapazaran-Irazola eta Etxaniz-Mendibe lehiatuko dira, eta hogeita lau epai egin beharko dituzte, hama-biko bi txandatan. Goizeko 11:00etan, haurrak ariko dira hainbat kiroletan.

l a b u r r e a n

X A K E A

■ Nigel Shortek irabazi du Iruñea Hiria txapelketa

NIGEL SHORTEK irabazi zuen herenegun X. Iruñea Hiria txapelketa. Azken partidari Jim Timman holandarra izan zuen aurrean, eta txapelketa irabazteko beharrezkoa zuen garaipena. Ingelesak ondo jokatu zuen, eta txapela eskuratu. Bigarren Zoltan Almasi hungariarra sailkatu zen.

S A S K I B A L O I A

■ Lakersek hamabigarren garaipena lortu du errenkadan

LOS ANGELES hiriko bi talde garrantzitsuenen lehiari Lakers izan zen garaile, Clippersi 118-101 irabazi eta gero. Garaipen horrekin Saquille O'Nealen taldeak hamabigarren garaipena erdietsi zuen errenkadan. Bestalde, Utah Jazz bere taldeko sailkapenaren lehen postuan jarri zen Hornets-i 118-96 irabazi ostean. Bestalde, Orlando Magic-ek 116-96 irabazi zion Vancouver Grizzlies-i.

T X I R I N D U L A R I T Z A

■ Vandenbrouckek taldean jarraituko duela baieztatu du Cofidisek

COFIDISEK Frank Vandenbrouckek taldean jarraituko duela baieztatu zuen atzo ofizialki. Ondorioz, amaitutzat eman daitezke dagoeneko azken asietan belgiarraren inguruan izandako etengabeko zurrumurruak.